



ikastolak



IÑIGO ARITZA IKASTOLA
ALTSASU



Betaurrekoak jarri eta... BIZI!

UDABERRIAREKIN BATERA, ATXITAMUTXITXA TXIMELETA JAIO DA, ETA IPUIN BEREZI BAT EKARRI DIGU BERAREKIN. EZAGUTU NAHI?

Testua eta irudia Iñigo Aritza Ikastola

Udaberriarekin batera, Atxitamutxita jaio zaigu. Atxitamutxita, bai. Izen berezia, ezta? Tximeleta bat da eta halaxe esaten da Urdainen tximeleta, atxitamutxita. Baina Atxitamutxita ez da bakarrik etorri. Castillo Suarezren eskutik, ipuin bat ekarri digu. Ipuina ezagutu nahi? Hona hemen gure Atxitamutxitaren abentura...

“Animaliek eta landareek hizketan egiten zuten garaian, bazen atxitamutxita bat lore bati atxikita bizi zena. Ez zen inoiz lorearengandik urruntzen.

Egunak joan eta gauak etortzen ziren bata bestearen atzetik, baina atxitamutxita ez zuen inoiz hegan egiten.

Inork ez zekien zein koloretakoak ziren bere hegala. Inork ez zekien hegal egiten zekien ere.

Lorearen nahigabea izugarria zen. Beldur zen uda bukatu eta, zimeldutakoan, atxitamutxita ez beharren bat izanen ote zuen. Ez zuen atxitamutxita bakarrik utzi nahi.

Lagun berriak egin behar zituen atxitamutxita, baina horretarako lorearengandik urrundu behar zuen ezinbestean. Atxitamutxita, ordea, ez zuen ausardiarik horretarako. Ikaratuta bizi zen.

Arratsalde eguz-

Betaurrekoak jarritzea ezinbestekoa da mundua beste modu batez ikusteko. Denak gara bereziak, eta horrek aniztasuna dakar

Gure Nafarroa Oinezen, inklusibitatea hartu dugu ardatz, eta horregatik gure ipuina era inklusiboan landu nahi izan dugu

Atxitamutxita tximeleta, betaurrekoekin.

kitsu batean, inguma bat gerturatu zitzaion euskararen festara gonbidatzeko, baina atxitamutxita ezetz esan zion, ez zuela joan nahi, baina ez zuen esan zergatik. Triste sumatzen zitzaion.

Goiz euritsu batean, pinpilipauxa bat hurbildu zitzaion eta proposatu zion zuhaitz hostotsu batera joatea aterpe hartu eta uretatik babesteko. Atxitamutxita hegalak pixka bat astindu zituen hegan hasteko, baina azkenean ez zen ausartu lorearengandik urruntzen. Bustita eta hotzez zegoen atxitamutxita, eta negarrez hasi zen. Tximeleta bat gerturatu zitzaion eta malkoak sikatu zizkion. Konturatu zen atxitamutxitaren begirada lausotuta zegoela, eta ez zuen gehiago behar izan jakiteko zein zen atxitamutxitaren arazoa. Atxitamutxita betaurrekoak behar zituen, ez besterik. Hegan egiteko gertura zein urrutira. Betaurrekoak jarri eta Altsasura abiatu zen, euskararen festara. Han lagun berriak egin zituen”.

Horixe nahi dugu guk, betaurrekoak jarri eta BIZI! Mundua beste modu batez ikusteko aukera zabaltzen delako. Mundu anitza, kolore askotakoa! Denak gara desberdinak, denak gara bereziak, eta berezitasunak ANIZTASUNA dakar.

Ipuina gure web orrian eskuragarri duzu: www.nafarroaoinez.eus. Baina desberdinak, bereziak, anitzak gare-lako, gure ipuina ere modu anitzetan eskaini nahi izan dugu. Inklusibitatea hartu dugu ardatz gure Nafarroa Oinezen, hortaz ipuina era inklusiboan landu nahi izan dugu. Ipuinarekin oinarritzat hartuz, hainbat jarduera proposaten joanen gara eta material desberdinak guztion eskura jarriko ditugu gure web orrian. ADI! ●

Birziklapen lehiaketa abian dago

“Entzun nola birziklatzen dudan” lehiaketa antolatatu du Nafarroa Oinezeko Ingurumen Batzordeak

ALTSASU – Altsasuko Iñigo Aritza Ikastola antolatzen ari den Nafarroa Oinez 2018ko ingurumen batzordeak, “Entzun nola birziklatzen dudan” lehiaketarako antolatatu du. Lehiaketa honen helburuak honakoak izanik:

- Aisian euskararen erabilera indartzea.

- Teknologien erabilera arduratsua bultzatzea.

- Jasangarritasuna eta birziklatze sortzailea sustatzea.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, pertsona edota talde bakoitzak, bideo bat bidali behar du birziklatutako materialak erabiliz, jostailu bat nola sortzen duen azalduz edota jasangarriagoak izateko aholkuak emanez. (Adibidez: lorategian ura aurrezteko 5 aholku).

Edozein adierazpen edo diziplina mota onartzen da (musika, antzerkia, dantza, performance, libdub,...), baina ikus-entzunezko formatuan (irudia eta soinua) aurkeztu behar da eta “DIY – Do it yourself” (zuk zeuk egin ezazu) bat azaldu behar da, azalpenak euskaraz izateaz gain, ahoz zein idatziz azaldu behar direlarik. Ahozko azalpenak idatziz jaso behar dira bideoan bertan edota beste artxibo batean, idatzizko testua atxikitu.

Lehiaketan parte hartu nahi baduzu gure web orria (www.nafarroaoinez.eus) bisitatu edota koordinazioa@oinez2018.ikastola.eus emailera idatzi eta informazio guztia zure postontzian jasoko duzu.

Hiru kategoria egonen dira, adinaren arabera sailkatuak, eta kategoria bakoitzeko sari bana banatuko da. Sariak uztailaren 8an, Nafarroa Oinezek Vistabellan antolatzen duen jarduera programaren barruan banatuko dira. – Iñigo Aritza Ikastola

Nafarroa Oinez'18 Altsasu


2017-2018 IKASTURTEKO AZKEN ORRIA!

Ikasturtea bukatzeaz dela, Nafarroako Ikastolek eta Diario de Noticias elkarlanean argitaratzen dugun orrialde honi agur esateko garaia iritsi da. Espero dugu gure lehiaketa txiki honekin ongi pasatu izana eta, ez ardura-du, datorren ikasturterako bueltan izango gaituzue eta! Mila esker guztioi zuen parte-hartzeagatik!

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Ekiñe Lournagari (Baztan Ikastola).

OINEZ BALEA (2): Aritz Santamaria (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezela, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.